



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,  
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX TALDEAK EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOAREN  
HAUTESKUNDE BATZORDEAK EMANDAKO ZENBAIT EBAZPENEN KONTRA  
AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAK EZESTEN DITUENA.**

---

**Esp.: xx/2017 eta xx/2017**

### **AURREKARIAK**

**LEHENA.-** Esteban Collantes Andoaga jaunak bi errekurtsu aurkeztu ditu XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX taldearen izen eta ordezkarietan 2016ko abenduaren xx(e)(a)n (xxx eta xxx erregistro-zenbakiak dituzte) Euskal Saskibaloï Federazioaren (ESF, aurrerantzean) Hauteskunde Batzordearen zenbait erabakiren kontra.

**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (KJEB, aurrerantzean) errekurtsu horiek izapidetzea onartu zuen, eta errekurritutako aldeari jakinarazi zion hamabost laneguneko epea zuela zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotako froga-izapideak proposatzeko.

**HIRUGARRENA.-** ESFren idazkariak helarazpenari erantzun zion otsailaren 8ko sarrera-erregistroa zeraman idazkiaren bidez, eta eskatutako dokumentazioa eta alegazio-idazkia aurkeztu zituen.

### **ZUZENBIDE-OINARRIAK**

**LEHENA.-** 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, KJEBk du errekurtsu hau aztertzeko eskumena.

**BIGARRENA.-** Esanenez, talde errekurtsogileak bi errekurtsu aurkeztu zituen – xx/2017 eta xx/2017 zenbakia daramate– Euskal Saskibaloï Federazioaren



Hauteskunde Batzordeak 2016ko abenduaren 20an onartutako erabakien aurka, zeinak abenduaren 23an ezetsi baitziren.

Bi errekurtsioak lotura estua dute elkarren artean, eta beraz, biak metatzea erabaki da.

**HIRUGARRENA.-** Honela azaltzen du errekurtsogileak lehen erabakia bere errekurtsioan:

[«Euskal Saskibaloiko Federazioko Batzar Orokorren hauteskundeetarako aplikatu behar den araudiari buruz hark atzoko eta gaurko idazkietan adierazitakoa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari kontsulta helarazi ondoren, hemen azaltzen dugu Sail horretatik jaso dugun erantzuna:

Euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen Kultura sailburuaren hauteskundeei buruzko 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 5.1 artikulua ezartzen duen arabera, «kirol-federazioek hauteskunde erregelamendu bat izango dute ezinbestez».

Hori esan eta gero, uste dugu batzar orokorrak erregelamendu horien bidez arautuko direla, hau da, lurralde-federazioek beren hauteskunde-erregelamendua aplikatuko dutela hauteskundeetarako, eta Euskal Federazioak ere bere hauteskunde-erregelamendua aplikatuko duela.

Hauteskundeei buruzko Aginduaren 6.2.k artikuluari jarraikiz, «Hauteskunde Batzordeak kirol talde edo elkarte bakoitzari dagokion boto haztatua aplikatuko du, estatutuetan boto hori aurreikusita badago».

Euskal Saskibaloiko Federazioaren estatutuek ez dute jasotzen ezer boto haztatuari buruz, eta beraz, ez dago erabiltzera behartuta, nahiz eta lurraldeetako federazioek hala erabili izan dagozkien hauteskundeetan (euren hauteskunde erregelamenduetan hala araututa balute/otsailaren 19ko Aginduaren 5. Xedapen Gehigarria, 30. puntua).

Horregatik guztiagatik, eta kontuan izanda bozketa euskal federazioaren estamentuetarako dela, Euskal Saskibaloiko Federazioaren erregelamendua aplikatu behar da»].

Batzorde honi eskatzen dio erabaki horri erabat deuseza iritzi diezaiola, eta beraz, honakoa ebatzi dezala:



a) Izaera nagusiz, indarrrik gabe uztea Gipuzkoako Saskibaloï Federazioko taldeen estamentuak 2016ko abenduaren 20an egindako bozketa, bidezkoa izanik Gipuzkoako Saskibaloï Federazioaren Batzar Orokorrerako beste deialdi bat egitea, non taldeen estamentuak Euskal Saskibaloï Federaziorako ordezkariak hautatuko dituen boto haztatuaren irizpideari jarraituta;

b) Era subsidiarioan, indarrrik gabe utzi behar da, nolanañi delarik ere, Gipuzkoako Saskibaloï Federazioko taldeen estamentuak 2016ko abenduaren 20an egindako bozketa, bidezkoa izanik Gipuzkoako Saskibaloï Federazioaren Batzar Orokorrerako beste deialdi bat egitea, non Euskal Saskibaloï Federazioan taldeen estamentuak izango dituen ordezkariak hautatuko diren Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ezarritako irizpideari jarraituta.

**LAUGARRENA.-** Errekurritutako bigarren erabakiak, bere aldetik, honela dio hitzez hitz:

[«Hauteskunde Batzorde honek ezagutu du Federazio horretako batzarkide batzuek aurkeztutako salaketaren bidez ALDABE BCTO. IRUN CD, ALOÑA MENDI KE, BEASAINGO KL, ERROIBIDE CD IRUN eta ESKORIATZA KE klubek, ezarritako epearen barruan eta Gipuzkoako Federazioaren aurrean, ordezkari-aldaketa aurkeztu zutela, gaur izango den Euskal Batzar Orokorrean ordezkariak hautatzeko Ezohiko Batzarrean klubaren estamentuaren bozketara joateko.

Gipuzkoako Federazioak gaur arratsaldeko 13:50ean jakinarazi du Batzarrean parte hartuko duten klubaren ordezkarien behin betiko zerrenda, eta kanpoan utzi ditu aurretik aipatutako bost talde horiek.

Batzarrerako ordezkariak aldatzeko epea gaur, asteartea (abenduak 20), amaitzen zen, eguerdiko 12:00etan, Gipuzkoako Federazioak berak jakinarazi izan duenez. Hortaz, aipatu bost taldeei epea amaitu ondoren jakinarazi izan zaie ordezkariak ezin zituztela aldatu, eta ukatu egin zaie akatsa zuzendu eta beste ordezkari bat aurkezteko eskubidea.

Hauteskunde Batzorde honek uste du talde horiei epea zabalik zegoen bitartean jakinarazi behar zitzaizela ordezkariak aldatzeko ezetza, hartara beste bat aurkez zezaten.



Horrez gain, uste du Gipuzkoako Federazioaren erabaki horrek murriztu egin duela batzarkide orok hauteskunde prozesu batean parte hartzeko duen eskubidea, dela hautagai modura dela hautatzaile gisa, noiz eta prozesua ahalik gardenen izan behar denean eta kideen parte-hartze handiena bultzatu behar denean.

Hori dela eta, Hauteskunde Batzorde honek erabaki du bertan behera uztea aipatu taldeek aurkeztutako ordezkarien aldaketaren baliogabetzea, eta beste ordezkari batzuk ezohiko eran aurkezteko aukera ematea. Hori gauzatzeko, Federazioa harremanetan jarri beharko da bost talde horiekin eta aldaketak onartu beharko ditu, beranduenez gaurko 19:00ak arte»].

Erabaki horren aurka aurkezten duen errekurtsioan eskatzen da ebazpenaren erabateko deuseztapena agindu dezala eta, ondorioz, indarrrik gabe utz dezala Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioko taldeen estamentuan 2016ko abenduaren 20an egindako bozketa, bidezkoa izanik federazio horren beste batzar baterako deialdia egitea Euskal Saskibaloiko Federazioaren aurrean taldeen estamentuko ordezkariak aukeratu ahal izateko; hauteskunde horietan ezingo dute parte hartu Aldabe BCTO, Irun CD, Aloña Mendi KE, Beasaingo KL, Erroibide CD Irun eta Eskoriatza KE taldeek.

**BOSGARRENA.-** Aurkeztu diren errekurtsioek funtsezko berdintasuna dute martxoaren 16ko bileran xxxxxxxxxxxxxxxx klubak aurkeztutakoa zela-eta Batzorde honek ebatzitakoarekin.

Izan ere, bai aurkaratutako federazio-jarduera bai alegatutako arrazoiak zein aurkeztutako eskaerek Batzorde hau bere aurrekariak kontuan izan eta zuzen jokatzerara behartzen dute, antzeko egoerei konponbide berdina emate aldera; xede horren zioz, aurreko hartan emandako zuzenbide-oinarri berberak azaltzen ditugu hemen ere:

**[BOSGARRENA.-** Auzipetutako egintzak Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioak Euskal Federazioaren Batzar Orokorrerako klubuen estamentuko ordezkariak hautatu behar dituenearan gertatu dira.



Errekurtsogilearen iritziz, ESFren Hauteskunde Batzordearen esku-hartzea prozesu honetako arauen kontra doa; ESFren Hauteskunde Batzordeak, berriz, uste du gaituta dagoela aurkezten diren aurkaratzeak ebazteko eta hauteskunde-manuak interpretatzeko.

Behin eztabaida azalduta, komeni da aurreratzea hauteskunde prozesu honetako berezitasun bat, alegia ESFren Hauteskunde Batzordeak duen ahalmena beste federazioetan, kasu honetan Gipuzkoako lurraldean, egiten diren hauteskundeak kontrolatzeko.

Halaxe dio Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduak (Agindua, aurrerantzean) bere 57. artikuluan, hau ezartzen baitu: «57. artikulua.- Lurralde federazioen ordezkariak hautatzea.

1.- Lurralde federazioek epe bat izango dute euskal federazioaren Batzar Orokorrean izango dituzten ordezkariak hautatzeko. Epe hori euskal federazioaren hauteskunde erregelamenduak zehaztuko du.

2.- Lurralde federazioen estamentuek Euskal Federazioaren Batzar Orokorrean kideak izendatu ondoren egingo dituzte bozketak. Lurralde federazio bakoitzeko presidentearen eginkizuna izango da Biltzar Orokorrearen ohiz kanpoko bilkurarako deialdia egitea, haren hautagaiak hautatzeko. Estamentu bakoitzak bere bozketa egingo du.

3.- Lurralde federazioetan hautatzen diren euskal federazioen Biltzar Orokorreko kideak, lurralde federazioetako kideak izango dira.

**4.- Aurrekoa gorabehera, ordezkari horiek zertzen dituzten bozketak euskal federazioaren Batzar Orokorra eratzeko hauteskunde-ekintzatzat hartuko dira; ondorioz, bozketa horien legezotasunaren kontrola euskal federazioaren beraren Hauteskunde Mahaiari eta Hauteskunde Batzordeari dagokie».**

Beraz, testuinguru hori kontuan dela ebatzi behar dira aurkeztutako errekurtsiak, Hauteskunde Batzordeak gauzatutako aipatu «legezotasunaren kontrol» eginkizun horrek salatutako akatsak dituen edo ez dituen.]

## **SEIGARRENA.- LEHEN ERREKURTSOA.**



Honako urraketa hauetan zehazten diren aurkaratze-arrazoiak adierazten ditu: **a)** 30/1992 Legearen 35. eta 62. artikulua; **b)** Aginduaren 6.2, 17., 57., 3.5, 21.2, 39.b eta 55.1 artikulua; **c)** ESFren Hauteskunde Erregelamenduaren 42. artikulua; **d)** GSFren Estatutuen 16. artikulua; eta, **e)** administrazio-prozedurari bide eman zion salaketa jartzeko legitimazio falta.

**1.-** Lehenik eta behin, prozesua frogaldirako jasotzea eskatzen zuen errekurtsuaren BEREBAT LEHENEAN aurkeztutako gaiari heldu behar zaio, «gure aldetik errekurritutako ebazpenetan aipatzen den ESFren Hauteskunde Batzordearen eskariz egindako kontsultaren ebazpena kontuan hartua izan dadin».

Kontu horri buruz Hauteskunde Batzordeak egindako alegazioetan onartzen du «erantzunaren» egilea ez dela izan Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, baizik eta «xxxxxxxxxxx» bulego profesionala, horrengana jo baitzen Saileko langileek emandako jarraibideak betez.

Txostenaren autoretzari buruzko kontua argiturik, aipatu beharra dago txosten hori, izatekotan, Aginduaren 20. artikuluan aurreikusitako aholkularitza-zereginen barruan dagoela, eta ez dela inola ere nahitaezkoa, ezta loteslea ere.

**2.-** Funtsari helduz, Batzorde honen ustez erabakiak ez ditu urratzen 35. artikulua a), b) eta h) letrak, eta ez dago 30/1992 Legearen 62. artikulua 1 eta 2 zenbakietan aurreikusitako erabateko deuseztasun-kasuetako bakar batean ere.

Horren gainean zehaztu beharra dago, batetik, lege hori –30/1992 Legea– jada indargabetuta dagoela; hori dela eta, alegazioak ez ditugu aztertuko aipatu legeriaren arabera, 39/2015 Legearekin –zati batean behintzat aurrekoaren ordezkia, 40/2015 Legearekin batera– bat doazen printzipioei jarraituz baizik.

Bada, Hauteskunde Batzordeak ez du aipatu printzipioetako –herritarren eskubideen lege arloa eta zuzenbideko erabateko deuseztatze kasuak– bat ere urratu, bere jardura hauteskunde araudiari jarraituz eta horren babesean gauzatu baita, eta beraz,



Batzorde honek ez du ikusten inolako arrazoirik salatutako urraketa horietakoren bat egin duela ondorioztatzeko.

**3.-** Beste horrenbeste esan daiteke Aginduaren 3.5, 21.2, 39.b), 55.1 artikulua eta baita Aginduaren 17.a ere urratu direla jotzeko alegatutako arrazoiei buruz.

Beraz, ez da Aginduaren 21.2 artikuluan jasotzen den (euskal federazioen hauteskunde-errola lurraldeko federazioetako batzar orokorretako parte-hartzaileek osatzen dutela dio) ezer urratzen, hauteskunde-errola ez zen eta abenduaren 20ko batzarrean onartu; Hauteskunde Batzordeak behin betiko onartu baitzuen abenduaren 9an egindako bileran, «horren aurka ez zela helegiterik aurkeztu» ikusita.

Eta ez dira ere 39.b) eta 55.1 artikulua urratzen, lurraldeko federazio bakoitzari esleitutako ordezkariak abenduaren 16an onartu zirelako. Ez du zehaztu, orobat, Aginduaren 3.5 artikulua urratzen dela zergatik ulertzen duen.

17. artikuluan ezarritakoaren ustezko urraketari buruz, berriz, errekurtsogileak hau argudiatu du: «(...) ulertu behar da ez dagoela 2016ko abenduaren 20ko erabakia onartu zen Hauteskunde Batzordearen bilerako aktarik, bestela eman egin beharko ziguketena»; jarraian «(...) prozedura-irregulartasuna da, eta zuzenbideko erabateko deuseztatzea dakar (...)» ondorioztatuz amaitu du.

Narrio horri buruz Hauteskunde Batzordeak hau dio bere alegazioetan: «Hauteskunde Batzorde honek (HB, aurrerantzean) uste du ez dagoela ebaipen hori deuseztatzea eskatzeko arrazoirik hori jasoko duen aktarik ez egotearen aitzakian, zeren, ikus daitekeenez, Batzordea osatzen duten guztiak jakinaren gainean zirela eta bere borondatez onartutakoa da, nahiz eta ezinbestean eta premiazko uneetan hartutakoa izan, ezinezkoa izan zelako osatzen zutenen berariazko bilera fisikoa, zegokion akta hartara egin ahal izateko; erabakia, ordea, posta elektronikoz eta telefono bidez aztertu eta onartu izan zen HB hau osatzen duten guztien artean. Honekin batera erantsita doazen agirietan HBko idazkariaren eta presidentearen presentzia eta esku-hartzea ageri dira».



Horrenbestez, Batzorde honentzat egoki bete izan da bai 40/2015 Legearen 17.1 artikuluan bai Aginduaren 17. artikuluan ezarritako helburua, hain zuzen ere «Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren bilera bakoitzean akta bat egin beharko da eta bertaratutako guztiek sinatuko dute» dioena.

Areago oraindik, ESFren Hauteskunde Erregelamenduak jasoa du aukera hori 6. artikuluan. Honela dio, hain zuzen ere: «Premiazkoa denean eta betiere jasotzeko bermea egonik kideek berariaz hala onartzen dutenean, Hauteskunde Batzordeak erabakiak hartu ditzake posta arrunta, posta elektronikoa, faxa, konferentzia, bideokonferentzia edo gisako bitarteko teknikoak erabilia. Halakoetan, Hauteskunde Batzordeko idazkariak dagokion akta egingo du federazioko administrazio-zerbitzuen laguntzaz, eta akta horri gutun, fax eta antzekoen jatorrizko agiriak erantsiko zaizkio».

4.- Azkenik, auzi-jartzaileak legitimazioa ukatzen dio xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunari prozedura honi bide eman zion salaketa aurkezteko.

Horrenbestez, Batzorde honek bat egiten du Hauteskunde Batzordearen erabakiarekin, honela azaltzen duenean: «Ildo horretan, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunaren legitimazioa bidezkoa den edo ez den kontuari buruz, eta ikusirik HB honek ahalmen eta funtzio ugari dituela legez hauteskunde prozesuaren garapen zuzena zaintzeko, aurkezten diren aurkaratzeak, erreklamazioak eta eskaerak ebazteko zein hauteskundeak egitearekin eta bere ordezkariari zuzenean eragiten dieten edozein konturi buruz ebazteko, iritzi zitaion ezen erantzun beharra zuela ESFan abian zen hauteskunde prozeduran boto haztatua aplikatzea bidezkoa zen, errekurtsogilea Gipuzkoako Saskibalo Federazioaren batzarkide hutsa izateagatik, kontuan izanik HB honen ebazpenak azaltzen duen moduan hiru kontsulta jaso zituela Gipuzkoako Saskibalo Federaziotik bertatik abenduaren 13ko eta 19ko datarekin».

#### **ZAZPIGARRENA.- BIGARREN ERREKURTSOA.**

Auzi-jartzaileak honela zehazten ditu aurka egiteko arrazoiak: **a)** 30/1992 Legearen 62. artikulua urratzen du; eta, **b)** Aginduaren 49.2, 55. eta 57. artikulua urratzen ditu.





Lehenengo arrazoiari buruz –30/1992 Legeko 62. artikulua urratzea–, aurretik horretaz esandakoari eusten diogu.

Bigarrenaz, berriz, Batzorde honek uste du errekurtsogileak ez duela nahiko arrazoirik azaldu Aginduaren 49.2, 55. eta 57. artikulua urratutzat emateko.

Azken batean, Hauteskunde Batzorde honi Aginduaren 57.4 artikulua hauteskunde egintzen legezketasuna zaintzeko ematen dion ahalmena kontuan hartzen bada erakunde hori gaituta dago aurkaratu diren erabakiak hartzeko, dela aurkeztutako aurkaratzeak ebatzita dela prozesuaren legezketasuna bermatzeko beharrezko neurriak ofizioz hartuta.

Aurreko guztia ikusita, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek hau

### ERABAKITZEN DU

Ezetsi egiten dira xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx taldeak Euskal Saskibaloia Batzordearen Hauteskunde Batzordearen zenbait ebazpenen aurka aurkeztutako (Federazioan xxx eta xxx zenbakiekin erregistratuak) errekurtsioak.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Gasteizko edo helbideagatik errekurtsogileei dagokien Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 11



José Luis Aguirre Arratibel  
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea